



Ardatz estrategikoa	Helburuak	Ekintzak	Adierazleak
GOBERNANTZA ONERAKO NEURRIAK	<p>Berdintasunaren arloan prestakuntza sustatzea</p> <p>Hizkuntzaren erabilera sexista egiten ez duten agiri gehiago erabiltzea edo argitaratzea, horien ehunekoa handitzea</p> <p>Hizkuntza ez-sexista egokitzea polizia-kidegoaren aplikazio informatikoetan</p> <p>Polizia-esparruan emakumeak agerian jartzea bermatzea, bai saileko komunikazioetan bai antolatutako ekitaldi eta jarduera publikoetan</p> <p>Barnean eta kanpoan hedatzea Sailaren/Zuzendaritzaren berdintasunaren arloko jarduketak</p>	<p>.- Prestakuntza sustatzen jarraitzea doako online ikastaroen bitartez, bai eta antolakunde barneko nahiz antolakundeaz kanpoko formakuntza-ekintza presentzialen bidez ere</p> <p>.- Gutxienez BLko kide bat prestatzeko aukerei buruz hausnarketa egitea, berdintasunaren edo berdintasuna sustatzearen arloko aditu gisa formakuntza zabala eta arautua egin dezan</p> <p>.- Hizkuntza inklusiboa sustatzen jarraitzea, eta Ertzaintzaren Zuzendaritzak/Buruzagitzak Berdintasunerako Lantaldeari emandako materialean edo argitalpenetan genero-ikuspegia behar bezala ezarri dela gainbegiratzea</p> <p>.- Helburu horrekin 2019an sortutako lantaldearekin jarraitzea eta gaian aurrera egitea, bereziki kolektibo osoaren ekarpenen premia izango litzatekeen alderdietan</p> <p>.- Berdintasunerako Lantaldeko kideen aholkularitza eska dadin lortzea, emakumeak agerian jartze hori lortzeko helburuarekin</p> <p>.- Sailaren Intraneten lanak argitaratzen jarraitzea, eta kanpoan komunikazioak egitea sustatzea eta proposatzea</p>	<p>➤ Prestakuntza jasotzen duten pertsonen kopurua eta tipologia</p> <p>➤ Atera den ondorioa, eta formakuntza horretarako pertsonaren bat aurreikusita dagoen 2020an</p> <p>➤ Gainbegiratutako argitalpenen eta agirien kopurua, proposatutako neurri zuzentzaileen laburpena</p> <p>➤ DGTSIrekin adostutako proposamen-kopurua, eta zentzu horretan eguneratutako aplikazioen edo aplikazio-zatien kopurua</p> <p>➤ Egindako jarduerak edo proposatutako neurriak</p> <p>➤ Argitalpen-kopurua eta egindako proposamenak</p>

	<p>Estatuko/Europako/Nazioarteko polizia-lankidetzarako eremuetan parte hartzea, eta aliantzak ezartzea polizia-antolakundeetan emakumeen presentzia sustatzen duten erakundeekin, bai eta horien garapena sustatzea ere</p> <p>Berdintasunari buruzko ikastaroak merezimendutzat hartzea lanpostuen eskaintza eta sustapen guztietan</p> <p>Komunikazio-kanala hobetzea, Ertzaintzako pertsonalak berdintasun-politiken sustapenari buruzko hausnarketak egin ahal izan ditzan edo kezka adierazi ahal izan ditzan</p>	<p>.- Ezarritako lankidetzaren dinamikarekin jarraitzea talde/organismo guztiekin</p> <p>.- Hitz egiten hastea, polizia-kidegoan, formakuntza eta hobekuntza ikastaroetan eta mailaz igotzekoetan, eta oposizio-lehiaketa modalitatean erakunde aitortuen berdintasunari buruzko ikastaroak baloratzearen bideragarritasuna azter dadin</p> <p>.- Aukera horri buruzko hausnarketa egitea, zerbitzu-eginkizunen eta hedapenen kasuan</p> <p>.- Bideragarria den jakin eta horren xehetasunak ezagutu ondoren, kontuan har dadin sustatzea eta, behar izanez gero, horretarako epe bat jartzea</p> <p>.- Gureneten Berdintasun Politiken atal espezifiko bat ezartzea, igualdad@ertzaintz.eus helbidearekin lotuta.</p> <p>.- Ertzaintzako unitate eta zerbitzu guztietan harremanetarako eta laguntzarako sare bat ezartzea Berdintasunerako Lantaldearekin</p>	<p>➤ Egindako bilera eta kontaktu kopurua, aztertutako gaiak eta egin ahal izan diren bestelako jarduerak</p> <p>➤ Egindako kudeaketak, gauzatutako proposamenak eta ateratako ondorioak</p> <p>➤ Ezarritako neurria eta izandako parte-hartzea</p> <p>➤ Lortutako emaitzak</p>
<p>EMAKUMEAK AHALDUNTZEA</p>	<p>Emakumeak Ertzaintzan sartzea sustatzen jarraitzea eta emakumeen aukerak eta ahalmenak balioestea</p>	<p>.- Ertzaintzako jarduerari eta garapen-aukerari buruzko informazio-kanpainak egiten jarraitzea emakumeei zuzenduta: Ertzaintzak gazteentzako lan-merkatuekin zerikusia duen ekitaldiren batean parte hartzea</p> <p>.- Emakumeen aukerak eta ahalmenak balioestea, polizia-kidegoko emakumeen erreferentziak emanez, PLEAko oinarrizko ikastaroan hitzaldien bidez</p>	<p>➤ Sartzeko eskaera kopuruaren ehunekoaren neurketa, neurriak hartu aurretik eta ondoren</p> <p>➤ Emandako hitzaldiak</p>

<p>EKONOMIAK ETA GIZARTE- ANTOLAKUNTZA ALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO</p>	<p>Zaintza-lana aitortzea eta gizonen eta emakumeen artean ekitatez banatzea ahalbidetzea</p>	<p>.- Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna bezalako kontzeptuak bere testuinguruan jartzen laguntzea</p> <p>.- Polizia-kidegoan kontziliazio erantzunkiderako neurri gehiago hartu beharri buruzko hausnarketari ekin ahal izateko beharrezko neurriak hartzea</p>	<p>➤ Gauzatutako ekintzak edo kolektiboaren esku jarritako baliabide erabilgarriak.</p> <p>➤ Hartutako neurriak</p>
<p>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZAK</p>	<p>Polizia-kidegoa sentsibilizatzea bikotekideen arteko gatazketan portaera desegokiei bide eman diezaieketen aurreiritziak, ikuskerak eta ohiturak alda ditzaten</p>	<p>.- Dekalogo bat prestatzea kasu hauetan egokiak eta desegokiak diren jardunbideak gogora ekartzeko eta horien gainean gogoeta egiteko, bereziki genero-indarkeria gisa tipifikatutako portaera bati bide eman diezaieketen kasuan.</p>	<p>➤ Prestatutako agiria eta horren hedapena.</p>